

# Abarak

JON TORNER

## 'Fausto' obra tragikoa antzeztu nahi du deabruak

*Tabú.*

Rubén Pellejero & Jorge Zentner.  
Glénat (2000).  
70 orrialde, zuri-beltzean.



JORGE ZENTNER idazle eta marrazkilarri argentinarrek herrialdetik ihes egin behar izan zuen diktadura garaian, 1977an, 24 urte zituela. Frantzian eta Israelen ibili ostean, Bartzelona ondoko Sitges herrian geratu zen. Han ezagutu zuen Ruben Pellejero marrazkilarri kataluniarra. Euren elkarlanaren aurreneko fruituak *Cimoc* aldizkariak argitaratu zituen. *Monsieur Griffaton-en* memoriak izeneko komikiek hasi zuten bi egileen arteko harremana.




1990. hamarkada hasieran Zentner-ek Tolosa (Akitania) hartu zuen bizileku, baina Pellejeroekin lanean jarraitu zuen. 2000. urtean plazaratu zuten esku artean dugun komikia: *Tabú* (Glénat). 2001eko Bartzelonako Komiki Azokan gidoi onenarentzako saria lortu zuen komiki poliziako horrek.

Matt Rivière polizia inspektoreak hiltzaile boteretsua du arerio: deabrua. Mefistofeles infernuko printzearen arrebari euren arima saldu diote zenbait lagunek. Jada ez dira euren bizi-

tzen jabe. Badakite zer egiten ari diren, baina zergatiak ez ditu inork ezagutzen, ezta beraiek ere. Soilik dakite bat batean alemanez mintzatzeko gai bilakatzen direla, eta ezagutzen ez duten Johann Wolfgang von Goethe idazlearen *Fausto* obraren pasarteak errexitatu ditzaketela. Baita edonor hil dezaketela ere.

Abiapuntuak eroa dirudi, baina ohiko istorio beltza da, elkar ikusterik ez daukaten poliziekin, maitale eta konfidenteekin, taberna ilunekin... Zuri-beltzeko argi-ilunek markatzen dute narrazioaren erritmoa. Pellejero-renak trazo garbiko ilustrazioak dira, anabasarik gabekoak, baina uneoro jokatzen du irakurlearen intuizioarekin. Beltzuneak nagusi direnean, zuri apurrarekin gai da eszena oso bat deskribatzeko, ilunpean geratzen den hori agerian lagatzeko. ■





## Dive Tarpoon urpekaritza





**Kirol portua, A7 lokala**  
**48992 GETXO (Bizkaia)**  
**Tel / Faxe: 94 4912577**  
**divetarpoon@euskalnet.net**  
**www.divetarpoon.com**

